	1997	2002	1998	2002	1996	2002	1997	2002	1998	2002
Ibilgailu pribatua	31%	32%	37%	39%	29%	31%	25%	24%	33%	35%
Garraio publikoa	19%	20%	12%	10%	8%	8%	23%	24%	19%	18%
Oinez	44%	43%	45%	45%	56%	55%	48%	49%	42%	41%
Beste batzuk	6%	5%	6%	6%	7%	6%	4%	3%	6%	6%

Bizkaia: Ibilgailu pribatuaren eta garraio publikoen erabilerak gora egin du. Aldiz, oinez nahiz beste era batean egindako joan-etorrien kopurua murriztu egin da.

Gipuzkoa: Ibilgailu pribatuetan egindako bidaiak gora egin dute, garraio publikoetan egindako bidaien kalterako.

Vitoria-Gasteiz: Ibilgailu pribatuetan egindako bidaiak gora egin dute, garraio publikoetan nahiz oinez egindako bidaien kalterako.

Bilbao: Ibilgailu pribatuetan egindako bidaiak behera egin dute, eta, aldiz, garraio publikoetan nahiz oinez egindako bidaiak gora.

Donostia-San Sebastian: Hiriburuko egoera lurralde osoaren egoeraren antzekoa da.

	BIZKAIA			GIPUZKOA			VITORIA-GASTEIZ			BILBAO			DONOSTIA-SAN SEBASTIAN		
	1997	2002	Δ %	1998	2002	Δ %	1996	2002	Δ %	1997	2002	Δ %	1998	2002	Δ %
Ibilgailu pribatua	780.103	898.549	15,2%	666.159	762.886	14,5%	149.561	189.638	26,7%	223.033	236.685	6,1%	168.700	194.956	15,5%
Garraio publikoa	478.144	570.092	19,2%	222.119	210.845	-5,1%	39.170	39.382	0,5%	205.635	232.329	13,0%	97.197	99.780	2,7%
Oinez	1.093.468	1.209.821	10,6%	798.721	884.849	10,8%	285.345	329.652	15,6%	445.038	479.821	7,8%	216.885	229.730	5,9%
Beste batzuk	140.373	140.668	0,2%	100.160	112.954	12,8%	35.361	45.346	28,2%	34.436	32.211	-6,4%	35.991	38.851	7,9%

(*) Garraio-modu bakoitzaren bidaien banaketarako, etapa bakoitza bidaia bat dela jo dugu.

(**) 1997. eta 1998. urteetako ikerlanetako garraio publikoaren inguruko datuetan ez dira lurralde arteko garraioko lineak sartzen. Datu horiek beste era batzuetara eman dira.

• Barruko bidaiak

	VITORIA-GASTEIZ		BILBAO		DONOSTIA-S. SEBASTIAN	
	1996	2002	1997	2002	1998	2002
Ibilgailu pribatua	27%	28%	13%	13%	27%	28%
Garraio publikoa	8%	7%	23%	24%	19%	18%
Oinez	60%	59%	62%	61%	47%	48%
Beste batzuk	5%	6%	2%	2%	7%	6%


(*) Vitoria-Gasteizen, Bilbaon eta Donostia-San Sebastianen bizi direnak.

Hiru hiriburuen barruan egiten diren joan-etorrietako banaketak islatzen duenez, Bilbaon garraio publikoan egindako bidaietako parte-hartzean igoera txiki bat egon da. Hala ere, Donostia-San Sebastianen eta Vitoria-Gasteizen aurkakoa gertatu da, hots, ibilgailu pribatuaren erabilera igo egin da, garraio publikoaren kalterako.

	VITORIA-GASTEIZ			BILBAO			DONOSTIA-SAN SEBASTIAN		
	1996	2002	Δ %	1997	2002	Δ %	1998	2002	Δ %
Ibilgailu pribatua	131.415	155.640	18,4%	90.938	98.117	7,9%	119.839	131.257	9,5%
Garraio publikoa	37.338	37.680	1,0%	168.426	188.576	12,0%	87.309	85.173	-2,6%
Oinez	285.092	329.453	15,6%	442.734	477.626	7,8%	213.038	227.950	6,9%
Beste batzuk	25.021	33.559	34,0%	17.961	17.298	-4,0%	30.380	30.821	1,4%

Vitoria-Gasteizen, Bilbaon eta Donostia-San Sebastianen bizi direnak

Bilakaera. Barruko bidaiak Vitoria-Gasteizen, Bilbaon eta Donostia-San Sebastianen.





• **Bilbaorako eta Donostia-San Sebastianerako sarbidea**

Bilakaera barruko bidaietan izandako bilakaeraren antzekoa izan da. Donostia-San Sebastianera eta batez ere Vitoria-Gasteiza ibilgailu pribatuen sartzearen kopuruak gora egin du. Bestalde, garraio publikoan beherakada egon da. Aldiz, Bilbaon, garraio publikoan iristeko bidaiak igo egin dira.

	BILBAO		DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	
	1997	2002	1998	2002
Ibilgailu pribatua	52%	51%	53%	60%
Garraio publikoa	41%	43%	34%	31%
Oinez	1%	1%	2%	2%
Beste batzuk	6%	5%	11%	7%


(1) Bizkaian bizi direnak; (2) Gipuzkoan bizi direnak.

	1997	BILBAO		DONOSTIA-SAN SEBASTIAN		
		2002	Δ %	1998	2002	Δ %
Ibilgailu pribatua	128.209	140.291	9,4%	67.500	76.166	12,8%
Garraio publikoa	100.049	116.751	16,7%	42.301	38.801	-8,3%
Oinez	1.278	2.834	121,7%	2.920	3.523	20,6%
Beste batzuk	15.182	14.096	-7,2%	14.051	8.491	-39,6%

Bizkaian eta Gipuzkoan bizi direnak.

(*) Vitoria-Gasteizen ez da bilakaerarik adierazi, Araban orain arte ez baita mugikortasun-ikerketarik egin.

Bilakaera. Bilbaorako eta Donostia-San Sebastianerako sarbidea



Azkenik, kapitulu honen amaiera gisa, komeni da honakoak azpimarratzea

Azken 5 urteotan izandako igoera erreferentziazko egoera jakin baten ondorioz sortu da, hain zuzen ere, ekonomia-jardueran izandako hazkundearen ondorioz.

- a) BPGa %26 igo da.
- b) 150.000 lanpostu gehiago sortu dira.

Era berean, ikasle-kopurua jaitsi egin da eta horrek eragina izan du; 32.000 ikasle gutxiago daude lehen eta bigarren hezkuntzan, eta 12.000 gutxiago unibertsitatean.

Arabian, ibilgailu motordunear egindako joan-etorrien kopurua % 21 igo da 1996-2000 aldian, batez besteko egun estandarrean. Hortaz, 1996. urtearen aldean, ibilgailu motordunear egindako 47.163 joan-etorri gehiago egin dira. Ibilgailu motordunear egindako joan-etorrien igoera horren baitan, bidaien % 85 ibilgailu pribatuan egin dira, eta % 15 garraio publikoan. Vitoria-Gasteizko barruko joan-etorriak % 21 igo dira (1996-2002 aldian). Igoera horretako bidaien % 84 ibilgailu pribatuan egin dira eta % 16 garraio publikoan.

Bizkaian batez besteko egun estandar batean ibilgailu motordunear egindako joan-etorrien kopurua % 15 igo da guztizkoaren gainean 1997-2000 aldian. Igoera hori txikiagoa izan da garraio pribatuan (% 15) garraio publikoan baino (% 19).

Ibilgailu motordunear egindako joan-etorrien igoeraren baitan, % 56 garraio pribatuan gertatu da, eta % 44 garraio publikoan.

Oinarria: ibilgailu motorduneko mugikortasunaren % 15.

Datu horren arabera, mugikortasun-igoerak daudenean, gehiago erabiltzen da garraio pribatua publikoa baino.

Autonomia Erkidegoko gainerako tokietan, ibilgailu motordunear egiten diren joan-etorrien igoera ibilgailu pribatuetan izan da erabat. Bizkaia izan da salbuespen bakarra. Bizkaian, ibilgailu motordunear egindako joan-etorrien hazkundearen zati handi bat garraio kolektiboaren baitan sartu da.

Egoera hori, hots, ibilgailu motordunear egiten diren joan-etorriak ibilgailu pribatuan egitea, ez da Bilbaoko udalerrian gertatzen.

Bilbaon, barruko joan-etorrietan 31.228 unitateko igoera izan da. Horietatik gehienak (% 77,2) garraio publikoaren bidez egin dira, eta % 22,7 besterik ez da egin garraio pribatuan.

Bilbaoko barruko bidaietan izandako igoerak garraio publikoaren indar handia islatzen du. Izan ere, garraio publikoak ibilgailu motordunear egindako igoeraren zati handi bat bere gain hartzeko indarra duela ikusi da.

1997. urtean, Bilbao udalerrian baitan ibilgailu motordunear egiten ziren barruko joan-etorrien % 34 ibilgailu pribatuan egiten ziren. Egun, kopuru hori % 32,8koa da. Beraz, garraiobide kolektiboan egindako barruko joan-etorriek gora egin dute; eta garraiobide pribatuan egindakoek, behera.

Bilbaon, barruko joan-etorrietan Garraio publiko gehiago eta ibilgailu pribatu gutxiago

Azken urteotan, ibilgailu-parkearen bilakaeran ikusten denez, motorizazio-tasa asko igo da. Vitoria-Gasteizen, esaterako, ia bikoiztu egin da.


Lurraldeka, bilakaeraren analisiko erreferentziazko aldian, % 19ko hazkundera izan da, eta honela banatu da: % 21 Araban, % 18 Bizkaian eta % 19 Gipuzkoan.

Motorizazio-tasek gora egin dutenez, eta hiriak erdigunetik urruti dauden auzoetara hedatzen direnez, hone-lako eragina izaten da: joan-etorrien luzera handitu egin da, pertsona bakoitzak egin beharreko joan-etorri guztien kopuruak gora egin du, eta garraio publikoaren erabilera murriztu egin da.

Gipuzkoan, batez besteko egun estandar batean, ibilgailu motordunear egindako joan-etorrien kopurua % 10 igo da 1996-2002 aldian. Beraz, 90.726 bidaiak gehiago egin dira. Hazkunde hori ibilgailu partikularretan baino ez da izan.




Beribil-parkea (beribil-kopurua)



Iturria: Geuk egina, Eustatek emandako datuetan oinarrituta.

Motorizazio-tasa (ibilgailu-kopurua, 1000 biztanleko)



Iturria: Geuk egina, Eustatek emandako datuetan oinarrituta.

Gipuzkoan ibilgailu motordunetako mugikortasun guztia ibilgailu partikularren bidez egin da. Gainera, garraio publikoaren kontsumoa jaitsi egin da pixka bat.

Donostia-San Sebastianen egindako barruko joan-etorrietan ibilgailu motordunez egindakoak igo egin dira. Orain 15.123 joan-etorri egiten dira, eta horietatik % 93 ibilgailu partikularrek egin dituzte, eta % 7 garraio publikoko ibilgailuek.

Ibilgailu partikularra gero eta gehiago erabili da, garraio publiko bidezko bidaien kalterako.

Donostia-San Sebastianen, barruko joan-etorrietan Ibilgailu partikular gehiago eta garraio publiko gutxiago

Hona hemen ibilgailu motordunen mugikortasunaren ondorio garrantzitsuenak:

- 1 Ibilgailu partikularren erabilera edo kontsumoa garraio kolektiboaren kontsumoa baino handiagoa da.
“Ibilgailu partikularra hedatu egin da, eta garraio publikoak atzera egin du”
- 2 Ibilgailu partikularrek publikoaren gainean duen gailentasuna hiri barruko joan-etorrietan baino nabarmenagoa da hiri arteko joan-etorrietan.
- 3 Arabako garraio publikoaren bilakaera mantendu egin da 1996-2002 aldian, eta ibilgailu partikularrek hazkunde handia izan du, % 26 ingurukoa.
- 4 Garraio publikoaren kontsumoak behera egin du zertxobait Gipuzkoan 1998-2002 aldian; ibilgailu motordunean egindako joan-etorriak aldiz % 9 igo dira.
- 5 Euskal Aeko hiru hiriburuek lurraldeko gainerakoak baino tasa nabarmen altuagoak dituzte garraio publikoaren erabileran.
- 6 Bilbaok du garraio publikoko kontsumorik handiena: ibilgailu motordunean egiten diren joan-etorrien % 60 modu horretan egiten da. Kopuru horiek Vitoria-Gasteizen eta Donostia-San Sebastianen % 30 eta % 46koak dira, hurrenez hurren.
- 7 Bilbaoren joera alderantzikatu egin da, eta garraio publikoaren kontsumoak gora egin du, eta ibilgailu partikularrenak behera.

Arrazoi zuten ibilgailu pribatua geratu egingo zela eta harentzako ordezkoa aurkitzea zaila zela aurreikusi zutenek, eta hala erakusten du Euskal Aeko mugikortasunaren bilakaerak.

Bizkaian izan ezik, motordun ibilgailuz egindako joan-etorrien hazkundera garraio pribatuan egiten da, garraio publikoaren kalterako.

Oro har ibilgailu partikularrek hedatzeak eragin gaiztoak sortzen ditu:

- a) Hiri-ingurunea hondatzea, lurra okupatzea, kutsatzaileak igortzea, zarata.
- b) Mugikortasunaren eragina ibilgailuek eragindako pilaketaren ondorioz. Gainera, motordun ibilgailuz egindako joan-etorri gutzien abiadura komertzialari eragiten dio.

Pilaketak gainazaleko ibilgailu guztien zirkulazio-abiadurari eragiten dio, bai eta garraio publikoarenari ere. Garraibide kolektiboaren abiadura komertziala txikiagotu izana lehenbailehen zuzendu beharreko alderdia da. Izan ere, txikiagotze horrek mugatu egiten du garraibide horren lehiazeko gaitasuna bera; hartara, bidaiari-kopurua gutxitzen zaio, eta ustiaketa-kostuak nabarmen handitzen.



6. Garraio publikoaren eskaintza, probintziak

PROBINTZIAK	Plazak/ordu	%	Plazak/1.000 bizt.
ARABA	10.116	6%	35,3
BIZKAIA	123.548	78%	110,0
GIPUZKOA	32.656	21%	48,5
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GUZTIZKOA	158.281	-	76,0

(*) Probintzia arteko garraio-lineei dagozkien plazak lotzen dituzten probintzia bakoitzari esleitu zaizkie. Beraz, Euskal AEko guztizko batura ez dator bat hiru probintzietako orduko plazen baturarekin.
Iturria: Geuk landua.

Euskal Autonomia Erkidegoan garraio publikoko orduko plazak 158.281 dira; Bizkaiko eskaintza % 78koa da, Gipuzkoan % 21ekoa eta Araban % 6koa.

Aldiz, 1.000 biztanleko orduko plazak aztertzen baditugu, ratio hori, guztizkoaren gainean, 76,0koa da; Bizkaian 110,0koa da, Arabakoa eta Gipuzkoakoa (35,3 eta 48,5, hurrenez hurren) baino askoz altuagoa.

PROBINTZIAK	Plazak/ordu TRENA	Plazak/ordu AUTOBUSA	Treko plazak/1.000 bizt.	Autobuseko plazak/1.000 bizt.
ARABA	4.315	5.151	15,1	18,0
BIZKAIA	64.552	58.996	57,5	52,6
GIPUZKOA	7.055	25.601	10,5	38,0

Iturria: Geuk landua.

Garraio publikoaren eskaintza garraibideen arabera aztertzen badugu, garraio publikoaren eskaintza txikiena duen Arabaren egoera bera da. Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko tartea eragiten dutenak Bizkaiko tren-eskaintza eta batez ere Metroko plazak (34.176 plaza orduko) dira, garraio-mota horretako plazen % 53rekin.

PROBINTZIAK	Metroko plazak/1.000 bizt.	Treko plazak/1.000 bizt.	Autobuseko plazak/1.000 bizt.
BIZKAIA	30,4	27,1	52,6
GIPUZKOA	-	10,5	40,0

Iturria: Geuk landua.

Garraio publikoan ekoiztutako km/orduaz ari garela, honakoak dira:

Garraio publikoan ekoiztutako km/orduak	
Araba	813
Bizkaia	9.465
Gipuzkoa	3.409
Probintzia artekoak	785
Euskal AEko guztizkoa	14.472

Iturria: Geuk landua

Probintzia bakoitzean ekoiztutako garraio publikoko kilometro/orduen kopuruak adierazten digunez, Bizkaian Arabak baino 12 aldiz kilometro gehiago ekoizten du, eta Gipuzkoak baino 3 aldiz gehiago.



Garraio publikoko joan-etorrietako batez besteko denborak, probintzia bakoitzean neurtuta, honako hauek dira:

EGOILIARRAK	BATEZ BESTEKO DISTANTZIA (km)	BATEZ BESTEKO DENBORA (minutuak)
ARABA	3,7	43,4
BIZKAIA	6,4	34,4
GIPUZKOA	7,0	44,8

Oharra: Kalkulu horiek Euskal Aeko zonifikazioan oinarrituta egin dira; hots, zona batean baino gehiagotan banatutako udalerrien barne-mugikortasuna hartu da kontuan.

Araban, batez beste, 3,7 km-ko joan-etorria egiten da (gehienak Vitoria-Gasteizen inguruan egiten diren seinale), eta joan-etorrietarako batez besteko denbora luzeak ditu.

Bizkaian garraio publikoan egindako batez besteko tartea 6,4 kilometrokoa da, batez besteko horretan Bilbao barruko joan-etorriak sartuta. Eta joan-etorriko, batez beste, 34,4 minutu behar izan dira.

Gipuzkoak Bizkaiak baino ibilbide handiagoak ditu garraio publikoan, eta batez beste 44,8 minutu ematen du joan-etorri bakoitzeko, Bizkaiak baino 10 minutu gehiago.

6.1. GARRAIO PUBLIKOAREN ESKAINTZA ETA ESKARIA HIRU PROBINTZIETAN

Aurrerago azaltzen diren koadro eta grafikoetan ikusten dugunez, korrelazio altua dago garraio publikoaren eskaintzaren eta eskariaren artean.

Garraio publikoa zenbat eta handiagoa, askotarikoagoa eta maiztasun gehiagokoa, hainbat eta handiagoa da herritarrek egiten dioten kontsumoa.

Hiriburuetan eskaintzen diren garraio publikoko plazak orduko


VITORIA-GASTEIZ	BILBAO	DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
5.123	140.651	25.573

Joan-etorriarako erabilitako garraiobidea, ibilbidearen luzeraren arabera (barruko joan-etorriak).


Ibilbidearen distantzia	VITORIA-GASTEIZ			BILBAO			DONOSTIA-S. SEBASTIAN		
	Pribatua	Publikoa	Oinezkoa	Pribatua	Publikoa	Oinezkoa	Pribatua	Publikoa	Oinezkoa
1,7 km baino gutxiago	32,6%	2,8%	64,1%	12,7%	10,0%	77,4%	28,7%	9,1%	62,2%
1,7 eta 3 km bitarte	49,9%	8,4%	41,7%	20,6%	39,4%	40,0%	40,8%	26,1%	34,1%
3 baino gehiago	69,2%	12,7%	18,1%	28,2%	58,8%	12,9%	56,3%	29,7%	14,0%


Garraio publikoko garraioa txikia da 1,7 km baino gutxiagoko joan-etorrietarako. Horietan, oinez joatea da gehien aukeratzen dena. Batez ere Vitoria-Gasteizen gertatzen da hori, oro har plaza gutxi eskaintzen baita.

1,7 km baino gutxiagoko joan-etorrien banaketa, garraiobidearen arabera



1,7 eta 3 km bitarteko joan-etorrien banaketa, garraiobidearen arabera



3 km baino gehiagoko joan-etorrien banaketa, garraiobidearen arabera


Bilbaon, garraio publikoaren kontsumoak nabarmen egin du gora 3 km baino gehiagoko barruko joan-etorrietarako. Horietan, modu-banaketak % 60 inguruko tasen inguruan ezarri du garraio publikoa. Gainera, Bilbaon, 3 km baino gutxiagoko barruko joan-etorrietan, ibilgailu pribatuaren kontsumoa gainerako hiriburuetan baino askoz txikiagoa da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, Bilbaok erakusten digu garraio publikoaren kontsumo altua modu estuan lotzen zaiela eskaintzen diren plaza-kopuruari eta haien kalitateari.

Eskaintzen diren plaza-kopurua alderatuz gero, Gasteizek askoz gutxiago eskaintzen ditu. Kontsumo baxua du modu publikoaren aldean, eta altua modu pribatuarenean.

Hiriburu bakoitzean neurtutako batez besteko joan-etorriak antzeko atalasean daude.

Batez besteko joan-etorri neurtua (km) G. publikoa (*)

VITORIA-GASTEIZ	BILBAO	DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
2,37	2,07	2,55

(*) Garraio publikoan zonen artean egindako batez besteko distantzia, joan-etorrien kopuruaren arabera.

Garraio publikoko batez besteko bidaiak laburragoa da Bilbaon Donostia-San Sebastianen baino, eta garraio publikoan neurtutako batez besteko inpedantziak erakusten duenez, bidaiaren batez besteko denborak nabarmen laburragoak dira Bilbaon (16,31 minutu) Donostia-San Sebastianen (26,76 minutu) eta Vitoria-Gasteizen (30,89 minutu) baino.

Bilbaoko joan-etorriak gainerako hiriburuetakoak baino azkarragoak dira, batez ere metroaren eraginarengatik; merkataritza-abiadura handia du, eta Bilbao-Bilbao joan-etorrietarako maiztasun bikainak.

Hala ere, batez besteko bidaiaren denbora-diferentziala (guztizko inpedantzia) Donostia-San Sebastian eta Vitoria-Gasteiz artean, Donostia-San Sebastianen Vitoria-Gasteizen baino autobus-lineen maiztasun hobeaz izatearen ondorio da.

	Batez besteko joan-etorria, garraio publikoan	Gutzizko inpedantzia
VITORIA-GASTEIZ	2,37 (Km.)	30,89 (minutuak)
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	2,55 (Km.)	26,76 (minutuak)

Maiztasun hobearen ondorioz, ontziratzeko itxarote-denborak laburragoak dira, eta hortaz, guztizko inpedantzia txikiagoa da.

Vitoria-Gasteiz: Garraio publikoko 3.808 plaza eskaintzen ditu orduko, batez beste 2,37 km-ko distantziarekin eta 30,89ko batez besteko inpedantziarekin (23,6 plaza orduko/1.000 biztanle).

Bilbao: Orduko 116.078 plaza eskaintzen ditu, batez beste 2,07 km-ko distantziako bidaiekin eta 16,31 minutuko bidaiako guztizko inpedantziarekin (401,9 plaza orduko/1.000 biztanle).

Donostia-San Sebastian: Garraio publikoko 18.920 plaza eskaintzen ditu orduko, batez beste 2,55 km-ko distantziarekin eta 26,76ko batez besteko inpedantziarekin (193,4 plaza orduko/1.000 biztanle).

Bilbaoko biztanleek 186.718 joan-etorri egiten dituzte Bilbao barruan garraio publikoan. Donostia-San Sebastiango biztanleek 82.144 joan-etorri egiten dituzte Donostia-San Sebastian barruan, eta Vitoria-Gasteizkoek 37.493, Vitoria-Gasteiz barruan.

Begi bistakoa da garraio publikoko kontsumorik handiena Bilbaon gertatzen dela, hots, eskaintza handiena eta garraio publikoko guztizko inpedantzia txikiena dituen hirian. Garraio publikoko kontsumo handiena modu estuan lotzen zaio eskaintzari eta joan-etorriaren abiadurari.

6.2. GARRAIO PUBLIKOAREN ESKAINTZA ETA ESKARIA ESKUALDEKA

Eskualdeetan, honako hau da garraio publikoaren eskaintza:

	Biztanleria	Treneko plazak (*)	Autobuseko plazak	Plazak guztira	Treneko plazak/1.000 bizt.	Autobuseko plazak/1.000 bizt.	Gutzizko plazak/1.000 bizt.
ARABAKO LAUTADA	228.991	115	5.008	5.123	0,5	21,9	22,4
AIARAKO ESKUALDEA	32.720	4.200	793	4.993	128,4	24,2	152,6
ARABAKO ERRIOXA	10.011	0	168	168	0,0	16,8	16,8
GORBEIALDEA	6.892	0	429	429	0,0	62,2	62,2
ARABAKO IBARRAK	4.681	115	168	283	24,6	35,9	60,5
ARABAKO MENDIALDEA	3.092	0	84	84	0,0	27,2	27,2
BILBO HANDIA	865.799	62.712	57.639	120.351	72,4	66,6	139,0
DURANGALDEA	90.495	3.680	4.340	8.020	40,7	48,0	88,6
PLENTZIA-MUNGIA	45.213	8.544	1.549	10.093	189,0	34,3	223,3
GERNIKA-BERMEO	44.110	920	1.804	2.724	20,9	40,9	61,8
ENKARTERRI	29.663	1.146	819	1.965	38,6	27,6	66,2
MARKINA-ONDARROA	26.095	0	864	864	0,0	33,1	33,1
ARRATIA-NERBIOI	21.262	4.200	2.168	6.368	197,5	102,0	299,5
DONOSTIALDEA	311.398	5.215	20.636	25.851	16,7	66,3	83,0
BIDASOA BEHEREA	71.645	3.835	2.128	5.963	53,5	29,7	83,2
UROLA-KOSTA	66.428	1.380	611	1.991	20,8	9,2	30,0
GOIERRI	63.510	2.915	1.452	4.367	45,9	22,9	68,8
DEBAGOIENA	62.010	0	736	736	0,0	11,9	11,9
DEBABARRENA	54.228	2.300	827	3.127	42,4	15,3	57,7
TOLOSERRI	44.344	2.915	2.609	5.524	65,7	58,8	124,6
VITORIA-GASTEIZ	216.852	115	5.008	5.123	0,5	23,1	23,6
BILBAO	349.972	62.712	77.939	140.651	179,2	222,7	401,9
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	178.377	5.215	20.358	25.573	29,2	114,1	143,4

(*) Tranbia sartzen da.
Iturria: Geuk landua.




Biztanleria gehieneko eskualdeei dagokienez (Bilbo Handia, Donostialdea eta Arabako Lautada), garraio publikoaren eskaintza nabarmen handiagoa da Bilbo Handian, 139,0 plaza orduko/1.000 biztanleko kopuruarekin; Donostialdean 83,0koa da, eta Arabako Lautadan 22,4koa.


Bilbo Handiaren eta Donostialdearen artean dagoen plaza-diferentziala treneko plazen eta bereziki Metroaren eskaintzak eragiten du. Izan ere, autobusen eskaintza aztertuz gero, plaza orduko/1.000 biztanle ratioa bi eskualdeetan antzekoa dela ikusten da.

Arabako Lautadari dagokionez, garraio publikoaren eskaintza txikieneko eskualdeetariko bat da. Ratioa 22,4 orduko plaza/1.000 biztanlekoa da; kopuru hori Debagoienak (11,9) baino ez du gainditzen.

Posizio hori ez du trenik ez izateak eragiten. Izan ere, ratio horrek eskualde bakoitzean autobusarekiko lortutako balioak aztertzen baditugu, egoera antzekoa da.



GARRAIO PUBLIKOAREN ESKAINTZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN





7. Inpedantzia eta irisgarritasuna

Atal honetan, garraio publikoaren inpedantzia aztertuko dugu, eskualde eta udalerrri bakoitzak besteekin duen batez besteko distantziaren arabera. Haztatzeko erabili den bidaia-oinarria udalerrien artean motordun ibilgailuan eginiko joan-etorriena da.

- **Batez besteko distantzia:** Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde edo udalerrri bakoitzetik gainerakoetara dagoen distantzia, kilometrotan.
- **Batez besteko inpedantzia:** Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde edo udalerrri bakoitzetik gainerakoetara garraio publikoan joateko behar den batez besteko denbora.
- **Batez besteko inpedantzia haztatua:** Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde edo udalerrri bakoitzetik gainerakoetara garraio publikoan joateko behar den batez besteko denbora, eskualde edo udalerrri horien artean eginiko bidaien kopuruarekin haztatuta.

ESKUALDEAK/UDALERRIAK	BATEZ BESTEKO DISTANTZIA (km)	BATEZ BESTEKO INPEDANTZIA (minutuak)
ARABA		
ARABAKO IBARRAK	59,94	273,69
ARABAKO LAUTADA	47,60	237,74
ARABAKO MENDIALDEA	59,49	278,61
ARABAKO ERRIOXA	70,56	270,00
GORBEIALDEA	42,20	228,08
AJARAKO ESKUALDEA	49,87	215,75
BIZKAIA		
ARRATIA-NERBIOI	39,88	179,16
BILBO HANDIA	49,62	160,18
DURANGALDEA	34,95	171,76
ENKARTERRI	59,85	232,29

ESKUALDEAK/UDALERRIAK	BATEZ BESTEKO DISTANTZIA (km)	BATEZ BESTEKO INPEDANTZIA (minutuak)
BIZKAIA		
GERNIKA-BERMEO	40,49	200,89
MARKINA-ONDARROA	38,89	212,26
PLENTZIA-MUNGIA	47,00	204,29
GIPUZKOA		
BIDASOA BEHEREA	71,05	217,65
DEBABARRENA	37,73	172,46
DEBAGOIENA	36,85	223,50
DONOSTIALDEA	57,44	175,95
GOIERRI	42,18	229,67
TOLOSERRI	47,67	216,73
UROLA-KOSTA	43,15	228,92

Oharra: Ez daude sartuta udalerrien barruko joan-etorriak.

- **Batez besteko distantzia haztatua:** Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde edo udalerrri bakoitzetik gainerakoetara dagoen distantzia, eskualde edo udalerrri horien artean eginiko bidaien kopuruarekin haztatuta.

Arabako eskualdeetako batez besteko inpedantzia handiagoa da beste bi lurraldeetan erregistraturikoa baino, salbu eta Aiarako eskualdeari dagokiona (215 minutu, 50 km-ko batez besteko distantziarako). Izan ere, azken hori Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualdeetako berdintsua edo txikiagoa da, joan-etorrien batez besteko luzerari dagokionez baldintza berdinetan edo hobeetan.



Bestalde, Bilbo Handitik abiatutako bidaien batez besteko distantzia 50 km-koa da, 154 minutuko inpedantziarekin. Euskal Autonomia Erkidegoko inpedantziarik txikiena da, Arabako Lautadarena (237 minutu, 48 km-ko batez besteko distantziarako) eta Donostialdearena (175 minutu) baino. Dena dela, Donostialdetik abiatuta eginiko joan-etorrietarako, batez besteko distantzia handiagoa da (57 km).

Gipuzkoaz den bezainbatean, aipagarri ditugu Debagoiena, Goierri, Toloserri eta Urola-Kosta eskualdeak. Bizkaiko eskualdeek baino batez besteko inpedantzia handiagoa dute, nahiz eta haietatik abiatuta egindako joan-etorrien batez besteko distantzia antzekoa izan.

Bizkaiari dagokionez, inpedantziarik handienak Markina-Ondarroa (212 minutu, joan-etorrien batez besteko distantzia 30 km-koa izanik) eta Enkarterri (232 minutu; hala ere, Bizkaiko eskualdeen artean, Enkarterri du joan-etorrietako batez besteko distantziarik luzeena, 60 km-koa) eskualdeenak dira.

Azken batean, Bizkai-Gipuzkoek egoera hobea dute Arabak baino, garraio publikoan eginiko joan-etorrien inpedantziari dagokionez.

IRISGARRITASUNA

Irisgarritasun-maila honela kalkulatzen da: abiaburuko puntuaren eta helmugako puntuaren arteko distantzia (zentroideen arteko distantzia), zati garraio publikoan bi udalerriren artean bidaiatzen emandako denbora (inpedantzia). Kasu honetan, esan genezake udalerrri batera besteetatik etortzeko bidaien abiadura kalkulatzeko modua dela.

Oharra: Ez daude sartuta udalerrien barruko joan-etorriak.

Behin zona arteko irisgarritasun-mailak (lurreko zona guztien arteko harremanak) kalkulatuta, udalerrri bakoitzeko adierazle espezifikoak kalkula daitezke:

i udalerrriaren batez besteko irisgarritasun haztatuaren maila:

$$NAMP_i = (SUMA(I_{ji} * D_{ji}) * V_{ji}) / V_i$$

Non I_{ji} = *j* udalerrriaren eta *i* udalerrriaren arteko zona arteko inpedantzia.

D_{ji} = *j* udalerrriaren eta *i* udalerrriaren arteko distantzia.

V_{ji} = *j* udalerrriaren eta *i* udalerrriaren arteko zona arteko bidaia orokorrak.

V_i = *i* udalerrria helmuga duten bidaia orokorrak.

Bizkaia barruko garraio publikoko irisgarritasuna gainerako lurraldeetan baino goragoko balioetan dago. Horrek esan nahi du sarea, maiztasuna eta estaldura hobek direla.

Gogoan izatekoa da aztergai den zonak Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako zonekin dituen batez besteko distantzia haztatuei lotuta doala irisgarritasuna. Hots, zona baten irisgarritasuna bere herritarrak doazen Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako zonei lotuta dago.

Hauek dira emaitzak:

ESKUALDEAK/UDALERRIAK	DISTANTZIA HAZTATUA	INPEDANTZIA HAZTATUA	IRISGARRITASUNA
ARABA			
ARABAKO IBARRAK	19,4	138,6	8,4
ARABAKO LAUTADA	33,8	171,3	11,8
ARABAKO MENDIALDEA	28,2	201,5	8,4
ARABAKO ERRIOXA	25,8	177,2	8,7
GORBEIALDEA	20,6	150,3	8,2
AIARAKO ESKUALDEA	20,8	94,5	13,2
BIZKAIA			
ARRATIA-NERBIOI	11,4	54,4	12,6
BILBO HANDIA	8,7	40,9	12,8
DURANGALDEA	8,9	49,9	10,7
ENKARTERRI	12,0	76,6	9,4
GERNIKA-BERMEO	12,7	56,9	13,3
MARKINA-ONDARROA	12,6	71,8	10,5
PLENTZIA-MUNGIA	11,7	64,5	10,8
GIPUZKOA			
BIDASOA BEHEREA	9,9	48,4	12,2
DEBABARRENA	9,9	53,6	11,1
DEBAGOIENA	11,2	80,4	8,4
DONOSTIALDEA	9,5	46,2	12,3
GOIERRI	7,6	52,7	8,7
TOLOSERRI	9,2	59,5	9,3
UROLA-KOSTA	11,1	59,6	11,1

Bilbo Handiaren irisgarritasun-maila (12,78) Donostialdekoaren (12,32 antzekoa da, bai eta Arabako Lautada-koarena (11,84) ere. Izan ere, Vitoria-Gasteizek garrantzi handia du eskualde horren barruan (bidaien % 90 hiriburuak eragiten ditu).

Hau da hiru hiriburuen irisgarritasuna:

HIRIBURUAK	IRISGARRITASUNA
VITORIA-GASTEIZ	12,3
BILBAO	15,2
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	14,4



Beste alde batetik, zona hauek dituzte defizitik handienak, lurralde bakoitzean:

• **ARABA:**

Arabako Lautadari eta Aiarako eskualdeari buruz jadanik adierazi dugunaz gain, beste eskualdeek ere Euskal Autonomia Erkidegoko irisgarritasun-indize murriztenak dituzte.

• **BIZKAIA:**

Bizkaiko eskualdeek, oro har, Gipuzkoakoek eta Arabakoek baino irisgarritasun hobea dute. Defizit handienak (irisgarritasun txikiena) dituen eskualdea Enkarterri da (9,43).

Enkarterriko egoera horren arrazoia horko udalerrri guztien irisgarritasun-maila apala da, bereziki biztanle gutxieneko udalerriena:

Lanestosa	7,5
Arcentales	4,2
Trucios-Turtzioz	2,5

Izan ere, udalerrri nagusietan irisgarritasuna onargarria da.

• **GIPUZKOA:**

Irisgarritasun-maila txikieneko eskualdeak Debagoiena (8,37) eta Goierri (8,69) dira.


Debagoienean, udalerrri guztiak salbu eta Oñati (9,0), Mondragón (9,3) eta Bergara (7,1) irisgarritasun-maila apalekoak dira.

Goierriin, berriz, eskualdeko udalerriek Gipuzkoaren barruan duten kokaguneari zor zaio irisgarritasun-maila apala. Segidan, irisgarritasun-maila txikieneko udalerrriak zehaztu ditugu (joan-etorri kopuru esanguratsua dutenak):


Zegama	6,4
Olaberria	6,2
Ezkio-Itsaso	5,1
Mutiloa	4,8

Ondoren azaltzen ditugun taulek eta mapek behar bezala adierazten dituzte udalerrri bakoitzeko irisgarritasun mailak.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESKUJALDEAK



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRIAK





8. Ondorioak

• MUGIKORTASUN OROKORRA

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnek, batez besteko lanegun batean, 5.464.160 joan-etorri egiten dituzte. Horietatik % 97 lurralde bakoitzaren barruko harremanak dira; % 2, lurralde artekoak; eta % 1, kanpo-zonekiko harremanak.

Bestalde, Bilbo Handia da joan-etorrietako % 40ren helmuga, Donostialdea % 18rena, eta Arabako Lautada % 11rena. Bilbao da bidaiak erakartzeko gaitasun handiena duen hiriburua, % 25ekin; helmuga hori duten joan-etorrietatik, udalerriaz kanpoko zonetatik datoz % 25, eta Donostia-San Sebastianen eta Vitoria-Gasteizen % 21ekoa eta % 8koa dira ehunekoak, hurrenez hurren.

Probintzia arteko joan-etorriei behatuz gero, Araba-Bizkaia eta Bizkaia-Gipuzkoa erlazioak antzekoak dira (gutxi gorabehera 50.000 bidaiaria/egun), Araba-Gipuzkoa (17.000) erlazioa baino askoz handiagoak.

Joan-etorri horiek batez ere lanegunetik eta ikasketegunetik (% 61 eta % 23, hurrenez hurren) sortzen dira, eta horietako gehienetarako gehien erabiltzen den garraio-modua autoa da (% 58); garraio publikoa (zerbitzu pribatua barne) joan-etorrietako % 38tan erabiltzen da. Gai horren ildotik, Araba eta Bizkaia arteko joan-etorrietan garraio publikoaren erabilera oso altua da (% 46), Bizkaia eta Gipuzkoa (% 34) eta Araba eta Gipuzkoa (% 29) arteko joan-etorrien aldean. Hiru hiriburuaren arteko joan-etorrietan erabilitako garraio-moduez ari garela, ibilgailu pribatua eta garraio publikoa antzeko proportzioan daude, zerbitzu pribatua asko erabiltzen baita. Hona hemen ehunekoak: ibilgailu pribatua % 49, garraio publiko erregularreko lineak % 12, zerbitzu pribatuko lineak % 39.

Gutzizkoa kontuan hartuta, autoa da joan-etorrietarako gehien erabiltzen den garraio-modua, oinezkoa alde batera utzita. Izan ere, joan-etorrien % 35 autoz egiten dira, eta % 13 garraio publikoz. Bizkaian beste bi probintzietan baino askoz gehiago erabiltzen da garraio publikoa, batez ere Arabaren (% 6) aldean, Bizkaian joan-etorrien % 19tan erabiltzen baita, eta Gipuzkoan % 10etan.

Garraio-moduen erabileraren gaineko alderdi nabarmenenak ditugu jarraian:

- ✓ Ibilgailu partikularrak garraio publikoa baino gehiago erabiltzen dira, eta garraio pribatua hiri arteko joan-etorrietan erabiltzen da gehiago, hiri barrukoetan baino.
- ✓ Euskal AEn hiru hiriburuak lurraldeko gainerakoak baino tasa altuagoak dituzte garraio publikoaren erabileran..
- ✓ Hiru hiriburuak kontuan hartuta, Bilbaon erabiltzen dira gehien garraio publikoak, bai barruko joan-etorrietan, bai udalerrira sartzekoetan.

• BEHARREZKO MUGIKORTASUNA

Bidaiaren arrazoiez ari garela, lanak eta ikasketek sortzen dituzte Euskal AEn batez besteko lanegun bateko joan-etorrien % 61, erosketek % 7 eta bestelako arrazoiek % 32.

Lanak sortutako mugikortasunari dagokionez, arrazoi horrek eragindako joan-etorri gehienak (% 88) eskualde barrukoak dira, hots, haiek sortzen dituzten udalerrien eskualde bereko udalerriak dituzte helmugatzat; fluen % 11 eskualde artekoak dira, eta % 1en helmuga Euskal AEn kanpoko tokiak dira.

Hiru hiriburuak aztertuta, bai Bilbaok bai Donostia-San Sebastianek arrazoi horrengatik bidaiak erakartzeko baino sortzeko gaitasun handiagoa dute. Vitoria-Gasteizek, alderdi horretan, bi gaitasunen arteko oreka du.

Laneko autokontentzioari (udalerrri berean lan egin eta bizi den biztanleria landuna) dagokionez, indize hori % 56koa da Euskal AEn osoan. Araban (% 83) Gipuzkoan (% 57) eta Bizkaian (% 47) baino askoz altuagoa da, Vitoria-Gasteizko indize altuaren (% 91) ondorioz.

Ikasketegunetik joan-etorriak kontuan hartuta, % 72 udalerrri barrukoak dira, eta % 47ren helmuga Euskal AEn hiru hiriburuak dira. Era berean, Leioa udalerrria nabarmentzen da (% 14), Euskal Herriko Unibertsitatea baita hangoan.



Erabiltzen diren garraio-moduak nabarmen aldatzen dira bidaiaren arrazoien arabera. Lan-arrazoiengatik joan-etorriek eta ibilgailu pribatuaren erabilera lotura estua dute, bidaien % 59 garraio-modu horrekin egiten baitira; joan-etorrien % 12tan garraio publikoa erabiltzen da. Ikasketen kasuan alderantzizkoa gertatzen da: garraio publikoa joan-etorrien % 38tan erabiltzen da, eta pribatua % 8tan; joan-etorrien % 54 oinez egiten dira.

• MUGIKORTASUNAREN BILAKAERA

Mugikortasunaren bilakaerari dagokionez, hazkunde nabarmena izan da probintzia guztietan, aurreko ikerketetako (Vitoria-Gasteiz 1996, Bizkaia 1997 eta Gipuzkoa 1998) datuen aldean.

Hazkunde horren arrazoiak ez da biztanleriaren hazkundera izan, probintzia guztietan jaitsi egin baita, Araban izan ezik, han pixka bat (% 1,6) hazi baita. Hazkunderaren arrazoiak izan dira, hortaz, ekonomia- eta gizarte-izaerako faktoreak, kasurako enplegua, BPG, errenta erabilgarria, kontsumoa...

Biztanleria	-1%
Enplegua	23%
BPG	26%
Errenta erabilgarri gordina (per capita)	34%
Etxeetako azken kontsumoa (per capita)	31%
Beribil-parkea	18%

Ibilgailu motordunetan egindako joan-etorriek izandako hazkundera gehien bat ibilgailu pribatuak hartu du. Hala ere, ezberdintasun esanguratsuak daude bai probintzietan bai Euskal Aeko hiru hiriburuetan.

Araba: Ibilgailu motordunetan egindako joan-etorrien hazkunderaren % 81 ibilgailu pribatuei dagokie.

Bizkaia: Garraio pribatuak hartutako mugikortasunaren hazkundera % 56koa da.

Gipuzkoa: Mugikortasunaren hazkunde osoa ibilgailu pribatuei dagokie.

Hiru hiriburuak dagokienez, Bilbaoko egoera beste bietakoen aurkakoa da. Barne-mugikortasunean izandako hazkunderaren % 77 garraio publikoaren bidez egin da, eta kopuru hori Vitoria-Gasteizen % 20koa da, eta Donostia-San Sebastianen % 7koa.

Joan-etorriak egiteko arrazoiak gagozkiela, eta langabezia-tasaren jaitsieraren ondorioz, gora egin dute lanak sortutako joan-etorriek, bai probintzietan bai hiru hiriburuetan. Alderantzizkoa gertatu da ikasketengatik joan-etorriekin, ikasle-biztanleriaren jaitsieraren ondorioz.

• GARRAIO PUBLIKOAREN ESKAINTZA

Garraio publikoaren eskaintza korrelazio handia dago garraio publikoaren eskaintzaren eta haren eskariaren artean. Euskal Aeko plazak/ordu kopurua 158.281ekoa da; Bizkaian garraio publikoaren eskaintza beste bi probintzietan baino askoz altuagoa da. Zehatz-mehatz, Bizkaian 110 dira 1.000 biztanleko orduko plazak, eta Gipuzkoan eta Araban 48,5 eta 35,3, hurrenez hurren.

Eskaintzaren diferentzial hori trenetako nahiz autobuseko plazetan gertatzen da, eta pentsatzekoa denez, eragin handia du Bilbo Handiko Metroaren eskaintzak.

Garraio publikoko joan-etorrietan neurtutako batez besteko denborari (inpedantzia) dagokionez, Bizkaian txikiagoa da, batez beste 6,4 km-ko joan-etorrietarako 34,37 minutu erabiltzen baitira; aldiz, Gipuzkoan 44,79 minutu behar dira batez beste 7 km dituen joan-etorrietarako, eta Araban 43,4 minutu 3,7 km-ko distantziarako. Hortaz, Bizkaian du garraio publikoaren eskaintzarik onena, bai zabalatasunaren aldetik bai zonen arteko konezioaren azkartasunaren aldetik. Horren eraginez, garraio publikoa gehiago erabiltzen da, eta garraio-modu horrek beste bi probintzietan baino erabilera-tasa askoz handiagoa lortu du.

Bestalde, hiru hiriburuak kontuan hartuta, garraio publikoaren kontsumoa murrizta da 1,7 km baino gutxiagoko barruko joan-etorrietan, horietan oinezko modua baita erabiliena. Hortik gorako joan-etorrietan garraio publikoa da modurik erabiliena Bilbaon, baina beste bi hiriburuetan, ibilgailu pribatua da nagusi.

Hurrengo koadroan jasotzen den bezala, eskaintza handiagoak (401,9 plaza/ordu 1.000 biztanleko) ez ezik, hiru hiriburuetan joan-etorriko batez besteko antzekoa den distantziarako inpedantzia txikiago izateak ere eragiten du hori.

	PLAZAK/ORDU 1000 BIZT.	BATEZ BESTEKO DISTANTZIA (km)	BATEZ BESTEKO INPEDANTZIA (minutuak)
VITORIA-GASTEIZ	23,62	2,37	30,89
BILBAO	401,89	2,07	16,31
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	143,36	2,55	26,76

(*) Garraio publikoan zonen artean egindako batez besteko distantzia, joan-etorrien kopuruaren arabera.

Labur bilduz, Bilbaon garraio publikoak beste bi hiriburuetan baino askoz kuota handiagoa du, hots, % 60 hiru kilometrotik gorako joan-etorrietan; kuota hori % 30ekoa da Donostia-San Sebastianen, eta % 13koa Vitoria-Gasteizen. Izan ere, Bilbaon garraio publikoko eskaintza handiagoa dago eta joan-etorriak azkarragoak dira Donostia-San Sebastianen aldean, eta bereziki Vitoria-Gasteizen aldean; Vitoria-Gasteiz da garraio publikoko plaza eta maiztasun gutxienekoa, eta horrek inpedantzia altua sortzen du.

• INTERMODALITATEA

Azkenik, eta intermodalitateari lotuta, gaur egun oso pisu txikia da Euskal Aeko mugikortasun osoan. Hala, desplazamenduen % 1,4 baino ez da egiten aldi batean baino gehiagotan (ia gehienak garraio publikoen artean); Bizkaian du indar handiena (% 2), eta Araban ia ez du pisurik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlana 2003



aurrera Juan herria un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



JARRI
HERRIAN SA

PARLAMENTU
TRANSPORTTS ZERBITZU PUBLIKOAK